

Ezpalak

JON TORNER

Bernardo Atxaga *ren Soinujolearen semea* nobelak Italiako Grinzane Cavour saria irabazi du atzerriko narratibaren arloan. Asteasuarra irabazle Handien sari berezia jasotzeko hautagaien artean ere badago. 2008ko sarien banaketa ekainean egingo dute Grinzane Cavour izeneko gazteluan, Italiako Piemonte eskualdean.

Photomuseum Zarauzko Argazki eta Zinema Museoan *Erretratu* izeneko erakusketa izango da ikusgai martxoaren 16a arte. XIX. mende amaierakoak dira irudj gehienak. Erakusketak lehenengo aldiz aurkeztu du Gipuzkoa Donostia Kutxak Photomuseumen utzi duen fondoan zati bat.



Isabel Diaz Moran musikologo bilbotarrak eta Easo abesbatzak jasoko dute aurreten Donostiako Orfeoik eta Euskal Herriko Unibertsitateak urtero banatu ohi duten musika alorreko saria. Abesbatzaren 68 urteko ibilbidea eta Diaz Moranek idatzitako *La canción para voz y piano en el País Vasco entre 1870 y 1939* (Ahots eta pianorako kanta 1870 eta 1939 arteko Euskal Herrian) liburua saritu dituzte horrela.

Gorka Arresek *Bazka.info* webgunean: «Goncourt Sarian idazleak 50 euroko txekoa jasotzen du. Nobelak hobesten dituen sari honek metafora maite du: irabazia, benetako saria –Goncourt-ean bezala gainerako sari ospetsuetan– liburuaren salmentan dago, sariak lantzamendua suposatzen duelako, alde aurretiko publizitatea daukalako, eta Frantziak badaukalako bizitza literario bat (...) Euskadi Sariak 18.000 euro idazlearentzat, liburuarentzat... Liburuak egin dezala betiko bide tristea, bera ere triste “Euskadi Saria” dioen faja ipinita. Zenbat salduko du? Iritsiko da institutueta? Ahituko ote da edizioa? Zenbat berrinprimatu? Ez ote zaigu erdia (eta gehiago) almazenean higatuko? Itzulpena ordaindua du, ordea, Euskadi Sariak. Baina zertarako itzultzen gara/dugu, esate baterako, euskal ipuinaren antologia Renoko Unibertsitatean publikatzen baldin bada ingelesez, literatura zirkuituetatik kanpo, euskal ipuina fakultatean ikertzeko bitxikeria balitz moduan? Ez daukagu sarerik gure literatura munduan zabaltzeko».

XX. mendeko artelanak ikusgai Bilboko Arte Eder museoan

Bilboko Arte Eder museoan erakusketa berezia izango da zabalik martxoaren 2a arte. Museoan ikusgai dauden obrak XX. mendeko arte bilduma bat osatzen dute. Euskal Herriko bildumagile baten obrak dira baina ez du bere izena ezagutzera eman nahi izan.



Egile askoren lanak daude tartean, besteak beste Kandinski, Picasso, Blanchard, Miro, Tapiés eta Chillidarenak. Guztira 63 obrek osatzen dute bilduma, 48 margolanek eta 15 eskulturek.

Eibar.org berritua

EIBAR.ORG elkarteak guztiz berritutako webgunea aurkeztu du eta eduki guztiak euskara hutsean izango ditu hemendik aurrera. Herri komunikabide baten antzeko funtzionamendua izango duela azaldu dute elkarteko kideek. Gainera, guztiz aldatutako diseinuarekin batera, atal berriak ere ikus daitezke: albisteak, agenda, eguraldia, blogak eta herritarrek zoriontzeko atalak.

Software sozialean lehenengo urratsak eman ditu MUK

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK (MU) blog plataforma (<http://blogs.mondragon.edu/>), blog batzailea, wiki plataforma eta Facebook komunitatean lan talde bat sortu berri ditu. Web 2.0k eskaintzen dituen baliabideak erabilia, software sozialaren bitartez, unibertsitatea lehen urratsak egiten hasi da, edukiak eta ikasleekiko harremanak beste modu batean kudeatzeko. Lau baliabide hauek MUKo bi irakasleek sortu dituzte, Iñaki Arenazak eta David Sanchezek.

Alaitz Olaizola antzerki idazleak *Diario Vascon:* «Antzerkiaren barruan gabiltzan idazleok beti pentsatzen dugu publikoarekin, eszenarekin, alderdi praktikoekin. Alde horretatik, oholtzarako pentsatutako lanak idazten ditugu (...) Posible da norbaitek pentsatzea saritutako lanek ez dutela eszenarako balio, baina nik askotan pentsatzen dut ez dituztela ezta irakurri ere egiten. Oro har, harremana falta da idazleonek eta antzerki taldeen artean».

Gorka Argandoña 'Ekain', *La Puta People* komiki liburuaren egileak *Xirikan:* «Gaur egun, teibistetan eta hedabidearen korporazio handiek faltasuten duten errealitatearen aurrean, komikiak gauzak modu gordinagoan eta azalik gabe erakusteko aukera ematen dizu. Nolabait, gehiago bustitzeko aukera ematen du, nahiz eta azken aldian *El Jueves* aldizkariarekin ikusi den bezala, mugak geroz eta agerikoagoak diren».

Banpiro, ez dakit, interesgarriak

Vampire Weekend, Vampire Weekend
(XL Recordings, 2008)

Ados, aurreneko diskoari taldearen izen bera jartzea ez da oso originala. Hortik aurrerakoa, ez dakit originala, baina freskoa behintzat bada. New Yorkeko (AEB) Columbia unibertsitatean elkartu zen Vampire Weekend laukotea. Campusa hiritik urrun dago eta ikasleen festetan jotzen aspertu ziren hasieran. Gero Sagar Handiko klubetan zer egiteko gai ziren erakusten hasi eta kontzertuetan lepo zuri berriak azaldu ziren banpiroen letaginentzat. Ahoz ahokoak funtzionatuko zuen, ez dakit, baina hozkaka-hozkaka orain XL Recordings zigiluarentzat —besteak beste The White Stripes-en diskoetxea— aurreneko lan luzea grabatu dute. Dracula kondeari ere irribarrea ezpaineratuko liokeen diskoa da. Xalo, Paul Simonen *Graceland* ezagunaren bidea jarraitu dute ahotsaren melodiek, baina 1980ko hamarkadako soinua kafearen filtrotik pasata. Ez espero gehiegizko sintetizadorerik, tarteka eta behar denean bakarrik sakatu dituzte teklak. Gitarren soiltasunean eta bateriaren jolasen datza graziaren parte handi bat. Egiten dutenak oso sinplea ematen du, erraz sartzen da belarritik, baina kantu bakoitzaren oinarri erritmikoa landu egin dutela igartzen da.

Halako kutsu, ez dakit, *afro* bat antzeman daiteke diskoa

osaten duten hamaika kantuen baterietan, eta horren gainean eraiki dituzte euren pop doinuak. Beharbada hori

da eszena *indie*-ari egin dioten ekarpenik, ez dakit originalena, baina interesgarriena behintzat.

Bukaerarako utzi dut baratxuria. Abeslariaren ahotsak goiko notetan karranka egiteko joera du eta horren erruz, zenbat eta entzunaldi gehiago egin, orduan eta errepikakorragoa egingo zaizu diskoa. *Peccata minuta* azken aldian buztin berarekin egindakoak diruditen talde anglosaxoien artean zerbait, ez dakit, desberdina ekarri duten lau gazte hauentzako. Ea arrakastarik ez duten. Pena litzateke industriaren erritmo kriminalek derrigortuta disko hau lantzeko hartu duten denbora ondorengoetan ez hartzea.



GORKA BEREZIARTUA

kenzazpi

www.kenzazpi.com • www.pserrano.com



"Argiak" diskoaren aurkezpen kontzertua

kenzazpi
taldearen eskutik.

Urtarrilaren 29 eta
30ean, arratsaldeko
8etan Bilboko Arriaga
antzokian.



Disko berria!

